



Tapoi solidarioak

Jesus Ortiz: boxeolari izandako itsasondoarra
Zaharrak berri: haurtxo lapurtuak
Ibilbidea: Gaintza-Baliarrain-Altzagarate-Gaintza



- 03. **Udaleko berriak:** Dirulaguntzak. 2012ko Aurrekontuak
- 04. **Eskola:** Inauteriak 2012
- 05. **Haurreskola:** Esfinterren kontrola
- 06-09. **Elkarrizketa:** Jesús Ortiz
- 10. **Agenda21:** Plastikozko tapoi bilketa
- 11. **Kale inkesta:** Tapoi solidarioak
- 12. **Gazteria**
- 13. **Arantzadi**
- 14-17. **Zaharrak berri:** Ume lapurtuak
- 18. **Ongizatea**
- 19. **Itsasondoko aitonak:** Sutondo catering
- 20-21. **Ibilbidea:** Gaintza-Baliarrain-Altzagarate-Gaintza
- 22. **Informatika**
- 23. **Euskal presoak**
- 24-25. **Hemeroteka**
- 26. **Liburuaren txokoa**
- 27. **Lorezaintza eta sukaldaritza**
- 28. **Oharrak. Kultur agenda**

itzalean eta isilpean orain arteko urte luzeetan egon diren hari-muturrak argitara atera nahirik. Elkarrizketen atarira jo eta Jesus Ortizekin kontu-kontari aritu gara, boxeolari izan zeneko garaia gogora ekarriz. Udaleko berrietan, berriz, udaletxea zaharberritzeko obrei egiten zaie aipamena, eta agenda 21 ekimenak plastikozko tapoien bilketarekin zenbait ume ezinduei laguntzeko diru bilketarako deia egiten digu herritarroi. Herriko adineko pertsonentzako hitzaldia- ren nondik norakoak ere jaso nahi izan ditugu eta Sutondo enpresak pertsona ezinduentzako abian jarri- tako zerbitzuaren berri izango duzue, baita Aranzadi Elkarteak aurtengo dituen egitasmoen inguruko xehe- tasunak ere. Alez ale Itsasondo inguruak ezagutzeko txangoen bilduma ari gara osatzen, eta oraingo hone- tan Gaintzatik abiatu eta Baliarrain eta Altzagarateko gainetatik barrena hasiera puntura eramango gaituen ibilbidea proposatzen dizuegu.

Hori guztia aurrerapen txiki bat baino ez da izan. Badakizue, ohi bezala, hori eta gehiago, beraz... astin- du aldizkaria eta gozatu Itsasondo 2.0-rekin!

Hurrengora arte eta bitartean kontent bizi! ■



DOINUA: Loreak udan ibintza bezela

Jubilatuei iritxi zaie
Sutondoko hitzaldia,
lapurtutako umeei heldu
zaie bigarren aldia,
Jesus Ortizek azaldu digu
gaztetako aurpegia,
eta Arantzadiak plazaratu du
aurtengo egutegia.

Udaletxeko obrak hasteko
jarria dago plazoa,
premieraren diru-umeentzako
bilketa kuriosoa,
Gaintza, Baliarrain, Altzagarate
ibilbide eroso
udaberriko usain freskotan
bada non eman pausoa.

Udaleko berriak



Hondakinen sorrera murrizteko asmoz, 2009. urtean Itsasondoko Udalak, Haurreskolarekin batera, pardel berrerabilgarriak erabiltzeko kanpaina egin zuen. Soberan geratutako pardelak oraindik geratzen direnez, haur txikiak dituzten gurasoak beren haurrekin pardel berrerabilgarriak erabiltzera animatu nahi ditugu. Beraz, nahi dutenek doan jaso ahal izango dituzte pardel horiek udaletxean, bule- go orduetan.

Diru-Laguntzak

Azken hilabeteen, zenbait diru-laguntza eskatu eta jaso da:

Eskatu direnak:

- Goimen elkarteari.
 - Urkien izandako luizia konpontzeko.
 - Frontoi ondoan kokatutako parkeko zorua konpontzeko.
 - Sarobe baserritik loigako herri bidea konpontzeko.
 - Herriko zenbait gunetan barandak jartzeko eta txu- kunketa-lanetarako.
- Foru Aldundiari.
 - Itsasondo 2.0 aldizkariaren maketazio eta inprimatze lanak sortzen dituen gastuetarako.

Jasotako laguntzak:

Udaletxeko erreforma obretarako Eusko Jaurlaritzatik Liburutegia eta Ludotekako faseak egiteko 150.970,96 euro agindu dizkigute.

Bidegorriaren obra

Foru Aldunditik jasotako azken informazioen arabera, Itsasondotik Ordizia bitarteko oinezko bidearen-bidegorriaren obrak 2012. urtean hastea aurreikusten da. Obrekin irail-urri aldera hasteko asmoa dutela jakinarazi digute.

Udal batzarreko berriak

2012ko urtarrilaren 26an egindako udal batzarrean tratatutako gaien artean, 2012ko aurrekontuaren onarpena.

Aurrekontua guztira 947.000 eurora iritsi da.

Kapitululako laburpena hau da:

SARREREN AURREKONTUA	
1 Zuzeneko zergak	133.627 €
2 Zeharkako zergak	3.000 €
3 Tasak eta bestelako sarrerak	89.850 €
4 Transferentzia arruntak	469.943 €
5 Ondare sarrerak	11.450 €
6 Inbertsio errealak besterenganatzea	0 €
7 Kapital transferentziak	184.130 €
8 Finantza aktiboak	0 €
9 Finantza pasiboak	52.000 €

GUZTIRA	944.000 €
GASTUEN AURREKONTUA	
1 Pertsonal gastuak	251.100 €
2 Ondasun arruntak eta zerb.	248.926 €
3 Finantza gastuak	5.100 €
4 Transferentzia arruntak	107.574 €
6 Inbertsio errealak	299.200 €
7 Kapital transferentziak	100 €
8 Finantza aktiboak	0 €
9 Finantza pasiboak	32.000 €

GUZTIRA	944.000 €

Batzar berean, Bildu koalizioak aurkeztutako zenbait mozio tra- tatu eta onartu ziren:

- Kutxa Banken Administrazio Kontseiluaren osaketari buruzkoa.
- Sektore publikoaren erreformari buruzkoa.
- Garoña zentral nuklearra ixteko eskaera.
- Lapurtutako haurren auziari buruzkoa.
- Gipuzkoan azpiegitura lan handiak geldiaraztearen alde- koa.

Itsasondoko Udaletxeko erreforma obra

Itsasondoko udaletxeko erreforma obraren 1. fasea esleitzeko tra- miteak amaitu ondoren, obrak URBICOLAN enpresari esleitu zaizkio. Lehen fasean, 2. solairuan kokatu behar diren bulegoen lanak, igogailua eta inguratzaile termikoa egingo dira. Obrak 450.821,29 eurotan esleitu dira.

Obrak hil honetan hasiko direla aurreikusten da. ■

**Inauteriak ate-joka zetozela eta, buruari eragiten hasi ginen mozo-
rroa prestatu nahian. Gaia garbi genuen: “ITSASONDO”. Zergatik?
Ikasturte honetan buru-belarri gabiltzalako eskolako haur eta ira-
kasle guztiok Itsasondo aztertzen, bertako mendi eta kaleak, lanbi-
deak, erakundeak, jendea, bitxikeriak, ohiturak... Horra hor inau-
teri hauetan “Itsasondo”z mozorrotzeko arrazoia.**

Inauteriak 2012; gaia: Itsasondo

Baina, nola mozorrotu gintezke “Itsasondo”z? Hasiera batean zaila bazirudien ere, Itsasondok baditu ongi sus-
traitu eta errotutako ohitura eta usadioak. Ikusi bestela!



SIKLO KROSS-A

Ikastetxeko helduenak, bizikletak eta pankartak eskuetan hartuta, ziklo-kross-eko txirrindulariz mozorrotu gara. Bizikletak bizkarrean hartuta froga gogorak pasatu behar izan ditugu; hala ere, Urkira igotzea baino errazagoa izan da!

Beste behin ere, epaileek eta animatzaileek paper bikaina jokatzen dutela erakutsi dute!



ZABOR BILKETA

Itsasondon bada azken urte hauetan indarra hartzen ari den kontu bat: zabor-bilketa sistema. Nola ahaztu Udala eta herritarrak hainbeste lan egiten ari garen kontu hau? Gainera, bide batez, ikasle, irakasle eta gurasoen oroimena freskatzeko balio izan digu; izan ere, zabor bakoitza bere edukiontzia-
kin elkartzeko dantza bat asmatu dugu.



IJITOAK

Itsasondorak “ijito” bezala ezagunak direnez, eskolako txikienok zartagiak eta banderak astintu ditugu musikari jarraituz. Benetan ikusgarri gaude! ■

P.D.: Mila esker Udalarari eta gurasoei herrian zehar desfilea egiten lagundu duzuelako.

Herri Eskolako irakasle eta ikasleak



Esfinterren kontrola eta autoritarismoa

Kaixo! Oraingo honetan esfinterren kontrolari buruz nahi dugu hausnarketa bat egin. Horretarako, Laura Gutman-en artikulu interesgarri bat topatu dugu zuekin elkarbanatzeko. Hona hemen artikulua:



inongo traumarik gabe, eta inongo arazorik gabe: esfinterra kontrolatzeko autonomia izango du.

Nire kontsultara, bost, sei, zazpi eta zortzi urteko haurrak eta zaharragoak zirenak enuresia arazoekin iritsi ziren urteetan. Gehienek gauetan pixa egiten zuten lo zeuden bitartean. Kasualitatez, pardela bi urte inguruan kenduak ziren. Enuresia kasuak oso ohikoak dira, baina normalki ez gara ohartzen, ez baita horretaz hitz egiten. Familiako sekretu bezala gelditzen dira. Egiaztatu dut gurasoei pardela berriz jartzea proposatzen diedanean (hauek aurpegi txarra jartzen dute), haurrek pardela kendu zitzaienten momentutik esfinterren kontrola eskuratzeko behar zuten denbora tarte hori behar dutela bakarrik pardelarekin berriz. Badirudi, kendu zitzaienten denbora berreskuratzen dutela. Eta ondoren “arazoa” bukatu egiten da, besterik gabe. Guraso batzuek uste dute “kontraesankorra dela pardela berriz jartzea, kentzeko erabakia hartu ondoren.” Egiazki, bizitzan probatu egiten dugu, eta atzerapausoak ematen ditugu beharrezkoa baldin bada. Beraz, zera esango dugu: “Uste nuen prest zeundela esfinterra kontrolatzeko, baina nahastu egin naiz. Eroso egoteko berriz jarriko dizut pardela, eta pixkat helduagoa zarenean, lortzeko baldintza hobean egonen zara.” Zentzuzkoa da. Tentsioak baretzen dira, eta azkenean, esfinterra kontrolatzen da.

Haurrek, gurasoen galderari erantzunez, esfortzu handia egiten dute kontrolatzeko, baina edozein zailtasun emozionalen aurrean (nahiz eta oso txikiak izan), esfortzua bertan behera geratzen da, eta pixak ihes egiten dio. Horrela, interpretazioak heltzen dira: “Nahita egiten du”, “Badaki kontrolatzen, baina ez du nahi...” Ulertzen dut presio soziala sufritzen dugula. Hiru urteko gela batzuetan ez dira

onartzen haurrak pardelekin. Pediatra, psikologo, bizilagun edo lagun batzuek iritzia ematen dute eta asaldatzen dira. Baina, posible da aukeratzea; pardelarekin haurrak jolas dezake, parkera joan, zorion festetara joan eta hori, alde guztietan pixaz bustitzegatik jasan beharreko apalkuntzarik gabe. Batzuek ez dute parkera joan nahi, pixa egingo duten beldurrez; beste batzuk lotsatu egiten dira; beste batzuk agresibo bihurtzen dira eta inguruko alfonbra guztiak bustitzen dituzte.

Bestalde, “pixa” egitea ez da “kaka” egitea bezala. Haur askok, nahiz eta pixa kontrolatzen jakin, pardela eskatzen dute, kaka egin ahal izateko. Garrantzitsua da beraiek eskatzen digutena eskaini ahal izatea; inork ez du eskatzen behar ez duena. Zergatik ez diogu emango, beraz?

Nik espero dudana da, egunen batean ohartuko garela zer nolako bortizkeria erabiltzen dugun haurrekin, zenbat existentzia ase ezin dituztenak; eta horiek gero beste sintoma batzuk dakartzate (angustia, gaueko beldurrak, negarrak, gaixotasunak, interes falta), gurasook sortu dizkiegunak.

Gure haurrak laguntzea euren heldutasun eta hazkuntza prozesua onartzea da. Eta ukoa sentitzen badugu aspektu baten batean, geure buruari galdetu beharko diogu zer gertatzen zaigun gure eginkari, gure genital eta gure beheko zonarekin, hainbeste lotsa eragiteko. Utz ditzagun bakean handitzen. Egunen batean, momentu egokia denean, beraien esfinterrak kontrolatuko dituzte naturalki, arrastaka, katamarrean, oinez, salto egiten, eskuak erabiltzen... ikasi zuten bezala. Ez dago ezer aldatzeko, geure ikuspuntua izan ezik. ■

Laura Gutman





Jesus Ortiz



Boxeolari izandako itsasondoarra

Elkarrizketa honetan, Jesussek boxeoa mundura gerturatuko gaitu, eta kirol horrek daukan ospe txarra garbitzen saiatuko da. Izugarri maite du kirol hori: bere bizitzako pasioa izan da. Kirol horren inguruan izandako pasarte eta bitxikeria ugari kontatuko dizkigu.

Zu Itsasondokoa zara orain, baina nongotarra zara berez?

Tahivilla izeneko herri batean jaio nintzen, duela berrogeita hamasei urte. Garai hartan, Tahivilla ez zen herritzat hartzen, kortijotzat baizik, eta kortijo hori “Duque de Feria” ezagunarena zen. Desjabetze prozesuak urte batzuk iraun zuen, baina gaur egun Cadizko probintzian dagoen herria da. Garai batean Gibraltarrekoa izan zen.

Zu, beraz, Gibraltarrekoa zara?

Beno, nik horrela esaten dut. Garai batean Andaluziak bederatzi probintzia zeukan, Gibraltar barne zegoelarik (probintziako hiriburua Algeciras zen), baina orain zortzi probintzia dauzka.

Zenbat senide zineten zure familian?

Zortzi senide ginen: bi neska eta sei mutil. Orain sei senide bizi gara. Ni dene-tan gazteena naiz.

Noiz hartu zenuten Euskal Herrirako bidea?

Hemen lan eskaintza handia zegoenez, hona etortzea erabaki genuen. Lehenengo Trintxerpera etorri ginen, arreba baten etxera. Nik orduan bederatzi urte nituen, eta Trintxerpen Karmengo Amaren ikastetxera joaten nintzen ikastera. Ikastetxeak frontoi bat zeukan. Albo batean gela bat zegoen, eta bertan Trintxerpeko boxeolariak entrenatzen ziren.

Hortik al dator zure boxeoa zaletasuna?

Bai, han hasi zen nire zaletasuna. Ordu asko egoten nintzen boxeolarietara begira, eta pixkanaka haiei laguntzen hasi nintzen: eskuak bendatzen, bendak jasotzen...

Une hartan boxeoa hasi zinen?

Ez, oraindik gaztea nintzen, eta, gainera, handik gutxira Larraulera joan ginen bizitzera, nire aitari Asteasuko enpresa batean eskaini baitzioten lana. Larraulen bi urte igaro ondoren, berriro Trintxerpera itzuli ginen bizitzera. Nik orduan hamahiru urte neuzkan, eta aurreko eskolara bueltatu nintzen. Aukera neukan berriro boxeoa zaletasunarekin jarraitzeko. Urte haietan, boxeolarien maila izugarri igo zen, eta Trintxerpek hiru “R” boxeolari zeuzkan: Rey, Rua eta Ramos. Hirurak oso maila altukoak ziren.



Urtain bezalako boxeolariarekin Irungo Uranzu frontoian egokitu nintzen, berak profesionaletan borrokatzen zuen eta nik afizionatueta.

Erreferentziazko boxeolariak izan ziren?

Bai, eta Jose Rey nire betidaniko idoloa izan zen. Urtain bezalako boxeolariarekin Irungo Uranzu frontoian egokitu nintzen, berak profesionaletan borrokatzen zuen eta nik afizionatueta.

Zuk berdin jarraitzen zenuen beraiei laguntzen?

Oraingo honetan, bendeekin-eta laguntzeaz gain bestelako gauzak ere egiten hasi nintzen, eta tarteka boxeo eskularruak ere janzten nituen. Horrela, izugarrizko zaletasuna sortu zitzaidan.

Oraingo honetan, boxeolari hasi zinen?

Ez, oraindik ez. Handik urte gutxira berriro herriz aldatu, eta Zizurkilgo Barrena kalera joan ginen bizitzera. Ordurako ikasketak bukatuak neuzkan, eta mandatu-mutil bezala hasi nintzen lanean, Hispano-Americano hotelean (Donostian). Ondoren, *Alas* izeneko enpresara aldatu nintzen. Bertan motor elektrikoak egiten zituzten.

Eta boxeolaritza?

Zizurkilen bizitzen nengoela, Amezketa-ko boxeolari bat ezagutu nuen. Hernanira joaten zen entrenatzera. Bertan, Trintxerpen entrenatzaile egon zen Jacinto Santin zegoen, bere garaian Espainiako txapeldun izandakoa, pisu ari-nen mailan. Beraz, Amezketako lagun horrek animatu, eta Hernanira joaten hasi nintzen, baina oraingo honetan boxeolari izateko. Gainera, ordurako izugarrizko zaletasuna neukan.

Edozein pertsona ibil daiteke boxeoan?

Beno, hasi aurretik entrenatzaileak balorazio bat egiten du, zein asmorekin zotozen ikusteko: zaletasuna, borrokan ikas-teko edo jende asko bezala liskarretan

ibiltzeko... eta, horren arabera, entrena-tzaileak erabakitzen du pertsona hori entrenatu edo ez. Liskarrerako zetorren jendea bidali egiten zuen.

Zeintzuk izan ziren lehenengo pausoak?

Santin entrenatzaileak zortzi hilabete eduki ninduen entrenatzen, lehenengo borrokaldia egin aurretik. Korrika, soka-rekin, punching-arekin, itzalak, zakua...

Azalduko zeniguke ariketa bakoitza?

Kilometro asko egiten genituen korrika, eta soka saltoan ibiltzea ere asko azpimarra-tzen zuen entrenatzaileak. Punching-a zin-tzilik dagoen larruzko bola bat da, eta bola horri nola eman ere jakin behar da. Nekatzean, eskuak jaitsi egiten zitzaizki-zun. Orduan, entrenatzailea etorri, pun-ching-ari atzetik jo, eta aurpegian jotzen zizun, “eskuak beti gora” errepikatuz. Zakuarekin kontu handia eduki behar zen. Pisu handia daukanez, zugana datorrenean jo behar duzu, distantzia batera. Itza-larekin, ispilu baten aurrean zure posturak aztertzen zenituen, zure gorputza nola babestuta zeneukan ere aztertzen zenuen, gero zure irudia jotzen saiatzen zinen. Asko ikasten zen ariketa horrekin. Lehenengo soka eta korrika menperatu behar zenituen punching eta zakura pasatzeko, eta, horiek menperatzean, itzaletara eta ondoren rin-gera pasatzen zinen.

Beraz, prestaketa gogorra?

Bai, oso gogorra. Pentsatu, ni garai har-tan lanean ibiltzen nintzen. Goizero 7:30erako lanera joan, eguerdian bazkal-du, berriro lanera, lana bukatu eta entre-natzera joaten nintzen gaueko 21:00ak arte, etxera etorri, afaldu eta lotara, eta hurrengo egunean berriro. Urte asko pasa nituen horrela. Fisikoki asko prestatzen ginen, baina, adi-bidez, janaria ez genuen zaintzen, agian aukerarik ere ez zegoen, gaur egunean ezberdina izango zen. Gainera, nire ara-zoa zen pisurik ez nuela hartzen, eta gaur eungo baliabideekin errazagoa izango zen.

Zortzi hilabeteren ondoren lehenen-go borrokaldia?

Prestaketa gogor horren ondoren, nire lehenengo borrokaldira iritsi nintzen. Entrenatzaileak hau esan zidan: “larun-batean, eguerdiko 12:00etan, Donos-tiako Trinitate plazan estreinatuko zara”.

Egun horretan, Villabonan hartu nuen autobusa, eta ilusioz beteta nindoan. Arrasateko beste boxeolari baten aurka borrokatu behar nuen, baina ez zen aurkeztu. Etxera itzuli behar izan nuen borrokatu gabe. Hura izan zen nire lehen borrokaldi saikera. Aurrerago borrokatu nuen boxeolari haren aurka.

Benetako borrokaldia?

Handik hilabete batera, Anoetako frontoian (orain Atano deritzona) estreinatu nintzen. Bi boxeolariontzat lehenengo aldia zen, eta izugarri gozatu nuen. Garai haietan zaletasun handia zegoen, eta frontoia zalez goraino beteta zegoen. Giro hark ikara, urduritasuna... sentiarazten zizun. Hankak dardarka neuzkan, eta entrenatzaileak lagundu zidan botak lotzen. Ondoren, ringera igo, eta deitu zigun. Lehendabizi, bendak ondo genituen begiratzan zuen. Gure eskuak babesteko egiten zuen, eta ez arerioari min egin geniezaiokeelako, benda gaizki ipiniz gero hatz-koskorrak hondoratu zitezkeen. Arerioari aurre egiteko, boxeo eskularruak zeuden, zurdaz eginak.

Eskularru guztiak berdinak ziren?

Ez, hiru neurri erabiltzen genituen: sei, zortzi eta hamabi hontzakoak. Oilar mailara arte 6 hontzakoak, super lumara arte 8 hontzakoak eta Walter ertainetik gora 12 hontzakoak. Entrenatzen 12 hontzako eskularruak erabiltzen genituen, horrela borroka egunean 6 edo 8 hontzako eskularruak erabiltzean, tarte gehiago aurkitzen ziren jotzeko arerioari. Garai hartako kategoriak hauek ziren, baxuenetik altuenera: “Mini eulia, eulia, oilarra, luma, super luma, arina, super arina, Walter, super Walter, ertaina, erdiastuna eta astuna”. Horiek ziren garai hartako kategoriak.

Borrokaldiarekin jarraituz, eskularruak egiaztatu ondoren?

Ring-eko gure txokoan, gure prestatzaileak eta laguntzaileak izaten genituen. Laguntzaileak hortzetako babesgarria kendu eta garbitzen zuen, aurpegian baselina pixka bat ere ipintzen zigun. Ondoren, kanpaia jo eta borrokaldiarekin hasten ginen. “Round” edo “eraso” bakoitzak hiru minutu irauten zuen, eta guztira hiru “round” egoten ziren. Borrokaldien artean, berriz, minutu bateko atsedenak. Ring-eko arbitroaz gain, mahaiko epaileak egoten ziren, eta haiek jasotzen zituzten borrokako gorabehera guztiak.

Nola jasotzen dituzte borrokako puntuak?

Borrokaldi batean puntuak egiten joaten



Arerioari barkamena eskatu behar zitzaion, pauso bat atzera eman, belaun bat lurrean ipini eta eskularruak gora jasotzen ziren.

Jende asko dago boxeoren aurka, kirol liskartsua dela esaten dutenak ezagutu gabe, baina badaude kirolak, futbola adibidez, borrokan amaitu eta irudi penagarria ematen dutenak, baina horregatik ez dute kritikatzan kirol hori.

29 borrokaldi hiruzpalau urtean. 23 borrokaldi irabazi nituen, 4 galdu eta 2 baliogabe.

1972 eta 1973 urteetan Gipuzkoako txapeldun izan nintzen Mini euli mailan.

.....

zara, zenbat kolpe eta nolakoak ematen dituzunaren arabera. Ring-aren erdian egoten den boxeolaria, kokapenagatik, puntuak irabazten egoten da, eta beste boxeolaria dantzan egoten da bere inguruan. Kolpe on bat sartuz gero, gibelean esaterako, arbitroak borrokaldia geratu eta babesezko kontaketa hasten du. Aparteko puntu bat izaten da. Baina puntuak kendu ere egin daitezke, araudiz kanpoko kolpeengatik, esaterako gerritik behera emaniko kolpeengatik. Mahaiko epaileek hori guztia kontrolatzen dute, eta borrokaldi amaieran puntuetara epaia eman dezakete edo, bestela, borrokaldia irabaz dezakezu arerioa gutxiago delako (bi borrokaldi horrela irabazi nituen). Hori gerta daiteke, arerioak borrokaldia bertan behera uzten badu: kolpe txar bat edo bekaina irekiz gero, adibidez. Eta noski, hain ezaguna den KO bidez ere irabaz daiteke borroka. Arbitroak zortzi kontatu, eta borrokaldia

amaitzen da, baina pisu arinetan oso zaila da.

Kolpe txar bat emandakoan?

Arerioari barkamena eskatu behar zitzaion, pauso bat atzera eman, belaun bat lurrean ipini eta eskularruak gora jasotzen ziren. Gainera, borrokaldiaren ondoren bi arerioek lagun bezala bukatzen genuen. Jende asko dago boxeoren aurka, kirol liskartsua dela esaten dutenak ezagutu gabe, baina badaude kirolak, futbola adibidez, borrokan amaitu eta irudi penagarria ematen dutenak, baina horregatik ez dute kritikatzan kirol hori. Boxeoan ez dago hainbesteko liskarrik. Gogoratzen dut nola esaten zidan entrenatzaileak “zu boxeatzera etorri zara, ez elkar jotzera”

Zergatik galdu da hainbeste zaletasun?

Boxeoren aurkako kanpainak egin dira, eta ospe txarra ipini diote. Horrez gain, boxeolariak ere gutxi lagundu diote, beti izan dute parrandazale eta mozhorti fama. Boxeolariak borrokatzeko moduan ez daudenean, lizentzia kendu behar zaie, boxeolari kalte handia egiten diotelako. Boxeoa kirol oso noblea eta errespagarria da. Zaletasun handia zegoen garai haietan, adibidez, gogoratzen dut Ordizian Arana kalean zegoen landa eremu guztia jendez gainezka egoten zela boxeoa ikusteko. Benetan zaletasun izugarria zegoen.

Dirurik irabazten al zen boxeoan?

Boxeo profesionalen, ordezkari edo managerren bidez funtzionatzen du. Ordezkariak apustu egiten du boxeolaria-rengatik, eta borrokaldiak bilatzen saiatzen da, eta borrokaldiko “poltsa” berak negoziatzen du. Poltsa horrekin denei ordaintzen zaie: entrenatzaileak, laguntzaileak, ordezkaria... bai eta boxeolariari ere. Afizionatueta, boxeolariak diru kantitate finkoa zeukan. Adibidez, Frantzian borrokatzen nuenean, 600 pezeta irabazten nituen, eta garai hartarako ondo zegoen. Horrez gain, zaleek gutun-azal batean dirua ipintzen zuten, gehien gustatzen zitzaaien boxeolariari emateko eta eskupeko ona ateratzen zen (6.000 pezeta inguru).

Zenbat borrokaldi egin zenituen?

Nire ibilaldia amateurra izan zen “Mini eulia” kategorian, 29 borrokaldi hiruzpalau urtean. 23 borrokaldi irabazi nituen, 4 galdu eta 2 baliogabe. Hemeretzi urterekin utzi nuen boxeoa, gehienbat ez nuelako pisurik hartzen eta ezin nintzelako kategoriaz pasatu. Pen-



tsatu, borrokatu nuen areriorik altuenak 1,48 metroko altuera zuen, beraz 20zm kentzen nizkion. Zaila zen aurkari bat topatzea baldintza horietan.

Amateurretatik profesioaletara pasatzea erreza al zen?

Horretarako, eduki duzun ibilbidea eta adina ere garrantzitsuak dira, baina badaude boxeolari batzuk, Urtain esaterako, zuzenean profesioaletan borrokatzen hasi zirenak.

Titulurik irabazi zenuen?

Federazioak erabakitzen zuen txapeldunak noren aurka borrokatu behar zuen, eta txapeldunak ezezkoa esanez gero, titulua kendu ziezaiokeen txapeldunari. Hemen ez da beste kiroletan bezala, final erdiak edo laurdenak egiten. Nire kasuan, 1972 eta 1973 urteetan Gipuzkoako txapeldun izan nintzen Mini euli mailan.

Zein izan zen borrokaldi gogorrena?

Biarritzen, Mirandako Rustam III.aren aurka. Zuk kolpe on bat sartzerako, berak bi sartzen zizkizun, ezintasun izugarria sentitu nuen.

Eta errazena?

Lehenengo borrokaldia. Entrenatzaileak esan zidan: “atera eta disfrutatu”. Hori egin nuen. Oroitzapen bikaina daukat.

Zure boxeolari bizitzan izandako pasarte interesgarriren bat?

Beno, 1976an soldaduskara joan nintzen. Bertan, zure bizitzan izandako zaletasun eta lanak apuntatzen zituzten, eta boxeolaria izan nintzela azaldu nuen. Nik soldaduska Melillan egin nuen, eta ordurako ezkondata nengoen. Lizentziatzeko gutxi geratzen zenean, teniente-koronel batek komandante batekin arazo bat zeukan. “Mini euli” mailan legionario bat zuen bere esanetara, eta ez omen zegoen soldadurik hura gaidituko zuenik. Komandantea tenientea zirikatzen zebilen. Horrela, militar horrek esan zidan, haren aurka borroka egiteko eta irabazteko, bestela ez nintzela lizentziatuko. Hogeia egun neuzkan prestatzeko, baina azkenean lortu nuen borrokaldia irabaztea, hori bai, asko kostata. Teniente hain kontentu geratu zen, ondorengo bi egunak mozhortuta pasatu genituela.

Itsasondora nola iritsi zinen?

Leitzan bizitzen nengoela, Iberdrolan hasi nintzen lanean. Handik Bilbora joan ginen lanera. 1984an Ormaiztegiara etorri ginen bizitzera. Ordurako langileburua nintzen. 1992an, Ordiziara eta orain sei urte Itsasondora iritsi ginen. Oso gustura nago.■

3 galdera motz

Zer duzu gustuko Itsasondon?

Dena gustatzen zait. Oso ondo ingratu gara, eta mundu guztiak agurtzen gaitu kaletik.

Zer botatzen duzu faltan Itsasondon?

Ez dut ezer faltan botatzen.

Inoiz izan duzun amets bat?

Gustatuko zitzaidan boxeoan iritsitakoa baino urrutirago iristea, hau da, profesional izatea.



Plastikozko tapoien bilketa

Itsasondon plastikozko tapoiak biltzen hasi gara. Plastikozko tapoiak birziklatu egiten dira eta hemendik lortzen den dirua gaixotasun larriak dituzten umeengana bideratzen da. Itsasondon jasotzen diren tapoiak Aitzina elkartera eta Urretxuko Markel umearengana bideratuko dira.

Hasieran, Itsasondoko eskolatik abiatu zen ekimen hau, baina azkenean, herri osora zabalduko da. Tapoiak uzteko hiru puntu egongo dira: eskolan, Lourdesen dendan eta udaletxean. Jasotzen den plastikozko tapoi tona bakoitzeko 300 € lortzen dira.

Zer egiten da plastikozko tapoi horiekin?

Plastikozko tapoi mota guztiak bildu (jogurtenak, botilen plastikozko tapoi guztiak, tetrabriken tapoiak...) eta Sasieta zabortegean jasoko dira. Ondoren, hondakinen kudeaketa egiten duen enpresa batek sailkatu eta prestatu egiten ditu birziklatzeko eta saltzeko. Tapoiak erosi dituen enpresak lehengai bihurtzen ditu eta ontzi berriak egiten ditu.

Tapoiak norengana bideratuko dira?

Itsasondon biltzen diren tapoiak "AITZINA" elkartera eta Urretxuko Markel umearengana bideratuko dira.

AITZINA (www.aitzina.org)

Aitzina lan-taldea Gasteizen jaio zen, 2010eko urrian, ataxia-telangiectasia (AT) gaixotasun genetikoa duten pertsonak (umeak gehienak) toki-ikusuntu batetik laguntzeko asmoz.

Helburua da ataxia-telangiectasiadun gaixoen arazak ezagutarazi eta aldi berean gaixotasun horren alde dirua biltzea, betiere toki-mailan, etxetik urrundu gabe. Gaixotasunaren ikerketa berri bat hasteko 50.000 – 60.000 € behar dituzte, eta lortzen duten dirua horretara bideratuko dute.

Urretxuko Markel

Markelek 11 urte ditu eta Epidermolisis Bullosa distrofica recesiva gaixotasuna dauka, "piel de mariposa" izenekoa. Gaixotasun hori oraingoz sendaezina da. Gaixotasun horrek bere egunerokotasunean eragiten dio; azala edozein kontakturekin altxatu egiten zaio eta gorpildun aulkian ibili beharra dauka. Urtean hainbat aldiz Estatuko hainbat lekutara joan beharra dauka tratamendua jasotzera edo ebakuntza egitera. Tapoiekin jasotzen duten dirua horretara bideratzen dute. ■



Markel López, Antxoa txakurrarekin

Tapoi solidarioak

Plastikozko tapoi bilketa ezaguna da gure artean. Badakizue zertan datzan?

Ba al duzu ohiturarik tapoi solidarioak biltzeko?

Tapoi solidarioen helburuaren berri izanda... bilketan parte hartzeko prest egongo al zinateke?



Maitane

Bai, ezagutzen dut, eta badaukat ohitura jasotzeko edo biltzeko. Badakit zertarako biltzen diren, eta prest nago bilketan parte hartzeko.



Ana eta Garbiñe

Ezagutzen dut, telebistan edota irratian entzun dudalako.

Ez dut tapoi solidarioak jasotzeko ohiturarik, batez ere ez dakidalako nora eraman behar diren. Hala ere, prest nago bilketan parte hartzeko, batez ere, jende horri laguntza eskaintzeko.



Amaia eta Josune

Bai, ezagutzen dugu, eta badakigu zertarako balio duen ekintza horrek. Hala ere, ez ditugu tapoiak biltzen, agian informazio gehiago behar dugulako, nora eraman jakitea, esaterako. Prest gaude bilketan parte hartzeko, oso interesgarria iruditzen zai-gulako gaixotasunak ikertzea, eta, jakina denez, horretarako dirua behar da.



Gaztelekuen arteko topaketan, futbito txapelketako itsasondoko taldea



Txuri Urdinen irristatzen



Zegama, itsasondo eta idiazabalgo nerabeak, futbito txapelketan parte hartu zutenak

Gazteria alorra

Gaztelekua

Ostiralero 12 bat gazte elkartzen dira gaztelekuan. Bertan, gustuko ekintzak egiten dituzte. Horrez gain, tailerrak ere egiten dituzte. Gabonetan, hainbat ekintza egin ziren; besteak beste, urtero egiten den Txuri Urdinerako irteera eta Idiazabalen izan ziren gazteleku arteko futbito txapelketak. Futbito txapelketan, Idiazabal, Zegama eta Itsasondoko nerabeek parte hartu zuten. Zegamako taldea izan zen irabazle. Tailer gisa, arroz esnea egiten ikasi zuten, eta bitxiak egiten ere jardun zuten.

Aste Santua gerturatzen ari da, eta, urtero bezala, gaztelekutik ekintza bereziak egingo dira, apirilaren 2,3 eta 4an. Hain zuzen ere, oraindik adostu gabe dauden bi irteera eta gazteleku arteko patata tortila izango dira herrian. Lehiaketara Zegamako eta Idiazabalgo gaztelekuko nerabeak daude gonbidaturik.

Nerabeak gustora ibiltzen dira gaztelekuan. Oporraldietan ere ekintza bereziak prestatzen dira, eta asko animatzen dira.

Haurrak

Haurrentzat ere ekintzak egin nahi dira Aste Santuan.

Gazteak

Udaleko Gazteria Sailak bultzatutako 18-30 proiektuaren inguruan, martxoan egingo da bigarren saiakera. Itsasondoko 18-30 urte bitarteko gazteekin garatu nahi den proiektu proposamenaren barruan, **saio parte-hartzaile** bat egitea aurreikusten da. Dena den, beharren arabera, gehiago behar izanez gero, prest gaude saio gehiago antolatzeko.

Proiektuaren helburuak hauek lirateke:

- Itsasondoko gazteek emantzipazio **bidean izan ditzaketen beharrak kolektiboki identifikatzeko** espazioa ematea.
- 18-30 urte bitarteko **Itsasondoko gazte guztiei** euren errealitatearen inguruan **kolektiboki hausnartzeko aukera** eskaintzea.
- Bertan, **premia horiek asetzeko egon daitezkeen aukerak** aztertu ahal izatea.
- Gazteen premiak Itsasondoko **udal-egituraren baitan ezagutaraztea** eta presente egitea. ■



Murumendiko harkaiztian dagoen eta Euskal Autonomia Erkidegoan bakantzat jotzen den *Saxifraga losae* espezie mehatxatua.



Loiako auzoan, bertan dagoen putzuari buruzko informazioa ematen duen panela. 2011. urtean jarria.

Itsasondoko udalak ondare naturala zaintzeko konpromisoa hartu du aurten ere

Ezagunak dira jadanik Udalak Itsasondoko ondare naturalaren kontserbazioan orain arte egindako ekimenak: baso autoktonoen errehabilitazio-rako landaketak, landa-eremuaren kontserbaziorako baserritarrekin elkarlana, herritarrek sentsibilizatzeko informazio-panel eta hitzaldiak...

Baina, ekimen hauek udalerriko ingurumenaren kalitatea mantendu eta hobetzen laguntzen badute ere, berebiziko garrantzia du horrelako ekimenek urteetan jarraipena izatea habitat naturalen galera urtetik urtera handitzen doan garai honetan.

Horrela, hainbat dira arlo honen inguruan 2012 eta 2013. urteetarako Udalak hartutako konpromisoak:

- Murumendi interes naturalistiko bereziko gunea izanik, bertan baso autoktonoa berreskuratzeko landaketak egingo dira.
- Martxoaren bukaera aldera herriko haurrekin zuhaitz eguna ospatuko da herriko txikiei gure basoen iguruan ikasteko aukera emanez.
- Landa-eremuaren kontserbazio egoera ona bermatzeko baserritarrekin elkarlanean aritu nahi da.
- Mundu mailan habitat naturalen galeraren arrazoi nagusienetakoa den flora exotikoaren erradikazioan lanean jarraituko da.
- Udalak diseinatutako udalerriko ibilbideetan zehar hainbat gai jorratuko dituzten informazio-panelak eta txori kaiolak ipiniko dira.
- Herritarrek eta ingurukoek euren ondare naturala hobeto ezagutu dezaten eta honen inguruan sentsibilizatu daitezen irteera eta hitzaldiak antolatuko dira.

Aurtengoa laugarren urtea izango da, Udala Aranzadiko Zientzia Elkartarekin batera arlo honen inguruan lanean ari dena. Hala ere, ez da ahaztu behar udalerriko eta inguruko biodibertsitatearen mantenua eta hobekuntza herritar guztion ardura dela. Udalak uste du, bereziki garrantzitsua dela herritarrek parte hartzea horretarako aukera ematen duten jardura guztietan. Horrela, eta bide batez, eskatzen da gai honen inguruan interesa duten guztiek eta jardura konkretuek horretarako aukera ematen duten heinean, Udalarekin batera elkarlanean aritzeko. ■



Hilobi hutsak, lapurtutako ametsak

HILOBI HUTSAK, LAPURTUTAKO AMETSAK
Urte hasieran, herritarrak guztiz hunkitu eta beldurtu gintuen albisteak jaso genuen: 1974. urtean ustez hil zen haur baten hilobia hutsik agertu zen Itsasondon. Familiak salaketa jarri eta gero, Gipuzkoako Epaitegiak hilobia zabaltzeko agindua eman zuen. Behin hilobia irekitakoan, egur zuri batzuk azaldu ziren. Gauza bera gertatu zen Donostiako Polloe hilerrian eta Bilboko Derio hilerrian ere. Itsasondokoa, tamalez, ehunka eta ehunka ustezko lapurretaren adibide bat baino ez da; izan ere, Euskal Herrian, zazpiehun salaketa baino gehiago jaso ditu jada SOS Haurtxo Lapurtuak elkarteak. Ustezko lapurreta horiek noiz eta nola gertatu ziren argitzeko, Marian Zubiarekin hitz egin du Itsasondo2.0 aldizkariak, SOS Haurtxo Lapurtuak elkartearen Euskadiko bozeramailearekin.

Zer garaitan hasi ziren ustezko lapurretak?

Lehenengoak 1940ko hamarkadan izan ziren. Gipuzkoan ezagutzen dugun azkena 1995ekoa da, eta Bizkaian, berriz, 1997koa.

Bazegoen amen profil jakin bat?

Bai, noski, baina profil bat baino gehiago daude. Ama biologikoa, normalean, lehenengo haurra izan behar zuen emakume gaztea edo bikiak izatera zihoana zen.

Gertatu zena hobeto ulertzeko, garai hartako erditzeak eta gaur egungoak oso ezberdinak direla azpimarratu behar da, ezta?

Bai, egia da. Esate baterako, orduan ez zegoen ekografiarik, eta, beraz, gurasoek ez zekiten mutil bat edo neska bat espero zuten, ez eta haur bakarraren ala gehiagoren esperoan zeuden ere. Ospitalean bertan ere egoera oso desberdina zen: emakumea bakarrik egoten zen erditzeko gelan, eta, umea jaiotzen zenean, ez zen amaren ondoan egoten, gela berean. Bestalde, esan behar da haurra hil zela esateko mometuan ere ama bakarrik egoten zela ia beti. Aita ospitaletik kanpo zegoen momentua aprobetxatzen zuten albistea emateko.

Zein izaten zen haurra lapurtzeko prozesua?

Normalean, aurpegian maskarilla bat jarri, eta ama lokartu egiten zuten haurra erditu aurretik. Emakumeek oxigenoa zela uste zuten, eta, beraz, ez ziren kezkatzen. Lo hartzen zutenez, ez ziren ezertaz ohartzen. Beste kasu batzuetan, amak haurra erditu bezain azkar, haurra gelatik ateratzen zuten korrika, amak bere negarra entzun ez zezan eta haurra ikusi ez zezan. Hala, errazagoa zen haurra hil zela sinestartzea, eta amek haurra ikusi ez zutenez, beste haur baten gorpua erakutsi ziezaioketen medikuak.

Gainera, kasu askotan, haurra malformazioekin jaio zela eta hobe zutela gorpua ez ikustea esaten zieten gurasoei.

Zenbaitetan, haurra arazoekin jaio zela eta beste ospitale batera eraman behar zutela esaten zuten. Halakoetan, haurra bidean hil zela esaten zuten gero. Ikerketei esker jakin dugu, ordea, haurra ospitaletik atera zela baieztatzen duten agiriak badaudela, baina ustez haurra eraman zuten ospitalean ez dagoela hori frogatzen duen inolako paperik. Beraz, zer gertatu zen bidean? Non galdu ziren haur horiek?

Zer gertatzen zen gurasoek gorpua ikusi nahi bazuten?

Amek haurra ikusi ez zutenez, beste ume baten gorpua ere erakutsi zezaketen. Zenbait kasutan, izoztutako haurtxo baten gorpua erakutsi zuten! Haurtxoa oihal

batean bil-bil eginda erakusten zuten, ilunpetan, sudurra eta begiak bakarrik agerian utziz. Denborarekin jakin dugu emakume bati baino gehiagori erakutsi ziotela gorpu berbera.

Ustez, ospitalea arduratzen zen gorpu horiek lurperatzeaz, edo hori esaten zieten gurasoei behintzat, ezta?

Bai, gurasoei esaten zieten lasai egoteko, eurak arduratuko zirela guztiaz. Hori, ordea, ez da sinesgarria. Gorpu bat lurperatzeak gastu batzuk dakartza, eta ospitale batek bertan hiltzen ziren haur guztien lurperatze gastuak bere gain hartzea ez da sinestekoa. Gainera, lan hori ez zen euren egitekoa.

Marian, ustezko lapurreta gehienak haurra jaio eta lehenengo 24 orduetan gertatzen ziren. Zergatik?

Haur bat jaio eta 24 ordu pasa aurretik hiltzen bazen, ez zen haur gisa hartzen, fetu gisa baizik. Ondorioz, haur hori 24 ordu pasa aurretik hiltzen bazen, haur hori ez zen existitzen, ez zen erregistratzen haur hori hil egin zela... Orduko legearen arabera, ez zen ume bat, fetu bat baizik. Haurra hil egin zela zioen agiri bat ematen zizuten, eta kitto. Orain zer gertatzen da? Ba, ustez haurra lapurtu zieten ehunka emakumek ezin dutela egiaztatu seme edo alaba bat izan zutela. Emakume horien haurrak egun bat pasa aurretik hil zirenez, orain ezin dute frogatu haur bat izan zutela, eta hori oso penagarria da. Emakume horiek lur jota daude, emozionalki oso-oso gaizki daude.

Zein zeuden ustezko lapurreta horien atzean?

Pentsatu behar dugu haur bat lapurtzeko jende asko behar dela. Ama gehienak lokartu egiten zituztela kontuan hartzen badugu, horrek esan nahi du anestesistak tartean zeudela. Erditzerakoan, medikuak ere ezinbestekoak ziren, gauza bera esan daiteke emaginez ere. Sasoi hartan, matrona asko mojak ziren, beraz, mojak ere tartean zeuden. Nire ustez, lapurreten atzean bitartekari asko ere izango zen. Haur horiek zein familiatara joan behar zuten eta zer egin behar zen erabakitzeko ere jendea beharko zen, ala?

Dena ulertzeko, kontuan izan behar da garai hartan medikuak, apaizak eta mojak oso boteretsuak zirela, eta eurek esandako dena sinestu egiten zela. Ezinezkoa zen haiek gezurra esan zezaketela pentsatzea. Norbaitek dudaren bat edo errezeloren bat agertuz gero, ingurukoek ia jan egiten zuten.

Zure ustez, hilerrietako arduradunak eta lurperatzaileak ere gertatzen zenaren jakitun ziren?

Ez dut uste denek jakingo zutenik. Kontuan izan behar duzu hilkutxa guztiz itxita eramaten zutela hilerriera. Lurperatzaileek kaxa jaso eta ireki gabe berehala enterratzeko agindua zuten. Baten bat tartean egon daiteke, baina hori denborarekin argituko da.

Ustezko lapurreta horien atzean, zer zegoen, dirua?

Bai, dudarik gabe. Oraindik erabat argitzeko badago ere, badirudi klinika pribatu batean, haurrak garai hartako berrehun mila pezetatan saltzen zituztela.

Zuen ustez, ustezko lapurreta kasu horietan, zeintzuk dira biktimak?

Gure ustez, lau biktima ezberdin daude. Batetik, ama biologikoa dago. Baina guraso adoptiboak ere biktimak dira. Jende askok uste du guraso adoptiboek bazekitela zer gertatzen zen, baina ez da egia, familia adoptiboak ez zekien ezer. Diru kopuru bat ordaintzen zuten, ustez adoptazioak eragindako gastuak eta ama biologikoak haurdunaldian izan zituen gastuak ordaintzeko. Medikuek zera esaten zuen: "hara, begira, ama erditzerakoan hil da" edo "ama oso emakume gaztea da, eta ezin du haurraren kargu egin. Haurdunaldian hainbesteko gastua izan du, eta gastu horiek eta adopzioarako tramiteak ordaintzen badituzu, guk haurra zure seme-alaba biologiko bezala jar dezakegu. Lasai egon, dena legezokoa da eta..." Horrela izaten zen, eta, noski, familia adoptiboek ez zekiten zer gertatzen zen. Adopzioei dagokienez, gauza bat argitu behar da. Adopzio mota ezberdinak zeuden. Kasu batzuetan, prozesua bera guztiz zen legezkoa, dokumentu guztiak ondo eginda daude, eta bertan azaltzen da haurra adoptatutakoa dela. Beste kasu batzuetan, prozesua bera ere ez da legezkoa izan, dokumentuetan ere irregulartasunak ageri dira. Azkenik, badaude apropiatutako haurrak. Haur horiek lapurtuak izan dira, baina dokumentuetan ageri da euren ama biologikoa euren ama adoptiboa dela. Horixe da nire kasua. Egoera horretan gaude nontzat oso zaila da zer gertatu zen argitzea.

Baliteke irakurleen artean norbaitek bera ere lapurtua izan daitekeela pentsatzea. Zeintzuk izan daitezke hori susmatzeko arrazoiak?

Lapurretak hasi zirenean, normalean, emakumeek oso gaztetan izaten zituzten haurrak. Beraz, ustez, amak hogeita hamabost urtetik aurrera izan bazaitu, hori susmagarria izan daiteke. Gehiengotan, ume bakarra izaten da; hau da, ez du anai-arrebarik izaten.

Nik esango nieke etxean lasai galdetzeko,

euren gurasoei galderak egiteko. Eta gurasoek esan dezatela egia, haur bat adoptatzea ez da bekatua, baina guk zer gertatu zen jakiteko eskubidea dugu, gure egia da.

Haurra lapurtu ziotela uste duten gurasoei, berriz, zera esango nieke: kontuan izateko 1939. urteaz geroztik, hilerrietan, derrigorrezkoa zela bertan lurperatzen ziren guztien datuak gordetzea. Beraz, ustez euren seme-alaba hilerri jakin batean lurperatuta badago, bertan egon behar dutela hori ziurtatzen duten agiriak. Agiri hori ez badago, litekeena da lapurreta kasu bat izatea.

Edozein kasutan ere, zalantzaren bat izanez gero, elkartera jo dezakete. Guk bertan emango diegu behar duten informazio guztia, eta azalduko diegu zeintzuk diren jarraitu beharreko pausoak. Dena den, azpimarratuko nuke zalantza kasuetan oso garrantzitsua dela ADN probak egitea. Askotan, dauden dokumentuak faltsuak dira, eta ADN probak dira egia frogatzeko balio duten bakarrak.

Gaur egun zenbat kasuren berri duzue?

Datuak ez dira zehatzak, baina zazpiehun eta mila artean izango dira. Goierrin hamabost bat kasu egon daitezke, Beasainen, Ordizian, Legorretan, Ataunen, Lazkaon, Olaberrian eta Zegaman. Geroz eta kasu gehiagoren berri izaten ari gara elkartean. Bide batez, lapurreta horien berri duten mediku, erizain eta abarri dakiten hori kontatzeko eskatuko nieke. Guk laguntza handia beharko dugu gertatu zena argitzeko, eta, beraz, lagun gaitzate. SOS Haurtxo Lapurtuak elkar-tearekin harremanetan jartzea edo Ertzaintzara joatea besterik ez dute horretarako.

Eusko Jaurlaritzak babesa azaldu badizue ere, oztopo asko dituzue aurrera egiteko, ezta?

Bai. Aurrez esan dudanez, haurra jaio eta 24 ordu pasa baino lehen hiltzen bazen, haur hori ez zen existitzen. Haurra hilda jaio zela esaten bazuten, hori abortutzat hartzen zen, eta hori ziurtatzen zuten agiri bat ematen zuten. Agiri horiek 1975etik aurrera gordeta daude, baina aurretik ez dago ezer, ez dago dokumenturik. Gainera, klinika pribatu gehienak itxita daude, eta ez dakigu klinika horietako historialak non dauden.

Orain badirudi politikarien artean gauzak mugitzen ari direla. Ea gauzak errazten zaizkigun, ea noraino iristen garen ditugun probekin, zailena hori baita, probak lortzea. Ea denon artean borondate pixka bat jarrita dena argitzea lortzen dugun.



“Agirien arabera, nire ama adoptiboa nire ama biologikoa zen”

Marian Zubia ustez 1972ko irailaren 29an jaio zen, Asuncion klinikan. Hamaika urte zituela, gurasoek adoptatua zela esan zioten. Gaur egun, guraso biologikoen bila ari da.

Guraso adoptiboak hil arte itxaron zenuen ikertzen hasteko. Zergatik?

Adoptatua nintzela jakin nuenean, zer gertatu zen jakin nahi izan nuen berehala, baina gure etxean debekatuta zegoen gai horretaz hitz egitea. Nik zer gertatu zen jakin nahi nuen, baina ez nien guraso adoptiboei minik egin nahi. Horregatik, borroka handia izan nuen nire barruan.

Zein izan zen eman zenuen lehen urratsa?

Hasteko, nire adopzioari buruzko agirien bila aritu nintzen etxean. Ezer aurkitu ez nuenez, Foru Aldundiko artxibategira jo nuen, adopzio guztien inguruko dokumentuek han egon behar dutelako. Nire harri-durarako, ni ez nintzela adoptatua esan zidaten, agirien arabera nire ama adoptiboa nire ama biologikoa zela. Nik esan nien hori ezinezkoa zela, amak berak esan zidala bera antzua zela, ezin zuela haurrik izan. Ondoren, badaezpada ere, izeba batekin hitz egin nuen. Hark baieztatu zidan ama antzua zela. Izebak kontatu zidanez, gurasoak hiru egunez kanpora joan eta nirekin bueltatu ziren, esanez Madrilén egon zirela, Escorialen, eta emakume batek alaba eman ziela.

Gertatutakoa argitzeko, nire jaiotza-agiria ere eskatu nuen. Agiri hori ezinbestekoa zen gero erregistroan izena emateko. Tira ba, horren arabera, nire ama adoptiboak erditu ninduen, hori zioen ginekologoaren paperak. Nik banekien hori ezinezkoa zela, beraz, erregistroko arduradunei eskatu nien eurek ere ospitalean nire jaiotza-paperak eskatzeko. Ospitaletik erantzun zuten, eurek zituzten dokumentuen arabera, nire amak ez zuela bertan erditu... Beraz, garbi dago tartean gezur asko dagoela, dokumentuek kontrakoa baitiote. Orain argitu beharko da zer gertatu zen. Nire kasua Tolosako epaitegian dago une honetan.



“Semea hilik jaio zela esan zioten Maria Jesus Zubeldiari. Semearen bila ari da orain ordiziarra”

Maria Jesus Zubeldia ordiziarrek seme bat izan zuen Tolosako Asuncion klinikan, 1971ko martxoaren 29an. Hilik jaio zela esan zioten. Zantzu guztien arabera, ordea, semea lapurtu egin zioten, eta hori hala izan zen argitzeko, borrokan ari da Maria Jesus.

Semea hilik jaio zela esan zizuten. Erditze ondorengo egunak latzak izan ziren, baina haurdunaldia bera ere ez zen samurra izan, ezta? Haurdun geratu nintzenean, Tolosako Asuncion klinikara joan nintzen, Benito Izagirre ginekologoarengana, nire ahizpa ere harekin egon zen eta. Hasieratik tratua ez zen batere ona izan, bere kontsultara sartu eta erabat biluzteko esan zidan modu zakarrean. Nik orduan 60 bat kiloko pisua izango nuen, ez nengoen gizona... ba arropa kentzean, gizenegi nengoela eta horrela ezingo nuela haurra bizirik mantendu esan zidan. Hori bakarrik ez, bularrak erorita nituela eta horrela

ez nuela umea bizirik aterako ere esan zidan. Izugarritzko errieta egin zidan, eta hala egoten nintzen hurrengo kontsultarako, beldurrez. Pentsa ezazu, nik garai hartan 23 urte nituen, eta orduan denak ziren "don" eta "doña". Horregatik, ez nuen batere protestatzen.

Nola gogoratzen duzu erditzea bera?

Bederatzi hilabete eta hamar eguneko haurdun nengoela, etxean mina sentitzen hasi nintzen, eta konturatu nintzen poltsa puskatu nuela, urak botatzen hasi nintzen eta. Likidoa garbia zen, horixka. Hala, goizeko hirurak aldera Asuncion klinikara joan nintzen.

Bertan, Mari Karmen Ibañez emaginak kasu egin zidan hasieran, eta, gero, Izagirre ginekologoarengana eraman ninduen. Kontsultatik atera eta igogailuan geundela, zein koloretako urak bota nituen galdetu zidan emaginak. Nik esan nion kolore argikoak zirela. Berak, ordea, klinikan, beltz-beltzak bota nituela esan zidan. Kontatu zidan kolore horrek esan nahi zuela haurrak lau zapabost egun hilda zeramatzala. Ni orduan pasa-pasa eginda geratu nintzen.

Kontsulta pasa eta berehala jaitsi ninduten erditzeko gelara. Garai hartan, Asuncionera propio joaten ginen, gehiago ordainduta, minik gabe erditzeko. Horregatik, aurpegian maskarilla bat jarri zidatenean, nik erabat normala zela pentsatu nuen. Maskarilla harekin lokartu egin ninduten, eta pixka bat esnatu orduko, berriro jartzen zidaten. Ni operazio-gelan bertan esnatu nintzen, eta gero gelara eraman ninduten.

Behin gelan, zer esan zizuten?

Benito Izagirre ginekologoa eta Mari Karmen Ibañez emagina etorri ziren gelara, eta haurra hilik jaio zela esan ziguten. Orduan, senarra eta biok negarrez hasi ginen. Ginekologoak orduan ere errieta egin zigun! Zergatik negar egiten genuen, gazteak ginela eta gero ere izango genuela haurrekin aspertzeko nahikoa denbora esan zigun.

Zuen semearen gorpua ikusterik izan al zenuten?

Ginekologoak esan zigunez, gure semea malformazio batekin jaio zen: burua gorputza baino handiagoa omen zuen. Hori entzunda, ez genuen ikusi nahi izan. Nire anaiak, ordea, ikusi zuen. Umea trapu batean erakutsi omen zioten, ia dena tapatuta, beraz, ezin izan zuen ia ezer ikusi. Gero denborarekin jakin dugu familia bati baino gehiagori esan ziotela gauza bera; hau da, haurra buruko malformazioekin jaio zela. Hori bakarrik ez. Emagin batek esan zigun ezinezkoa dela haurra lau zapabost egunez barruan hilik izatea, gorputzak berak botatzen duelako bigarren egunerako. Beraz, emaginak esan ziguna ere gezurra zen.

Hurrengo egunean, ginekologoa gelara etortzean, beldurraren beldurrez esan nion: "Don Benito, nik ume hori ordiziara eraman nahi nuke. Gure aita zena han dago lurperatuta, eta nik haren ondoan enterratu nahi nuke, gutxienez loreak non jarri jakiteko. Nik barruan eraman dut bederatzi hilabetea, eta orain sekulako hutsunea daukat. Horrexegatik, Ordiziara eraman nahi nuke". Bueno, ba hori esan, eta gozoa jarri zen! Horiek txorakeriak zirela esan zidan, eurak ardu-

ratuko zirela haurra enterratzeaz. Orduan, haurra non lurperatuko zuten jakin nahi izan genuen, halakoetan hori egiten bazen, hori onartzeko prest geunden, baina zein leku jakinetan enterratuko zuten jakin nahi genuen, gero loreak hara eramateko. Gure tristurarako, medikuak esan zigun hobi komun batean enterratuko zutela.

Hori dena pasa, eta, hala ere, ez zenu ten ezer susmatu?

Nola ba? Garai hartan medikuek esandako dena sinesten genuen! Ez hori bakarrik, pasatakoak pasa eta gero ere, berriro itzuli nintzen Izagirreren kontsultara. Berriro familia izateko oso ondo nengoela esan zidan, eta berehala geratu nintzen haurdun. Bigarren aldian, dena zen adeitasuna, aurreko aldian baino askoz ere hobeto tratatu ninduen. Haurdunaldia ondo joan zen, baina konplikazio batzuk izan zirenez, haurra zesarea bidez jaio zen. Orduan, ginekologoak esan zidan hurrengo bost urteetan ezin nuela haurrik izan, behin zesarea bat izan eta gero arriskutsua zela. Hala, tratamendu bat jarri zidan. Hilero joaten nintzen indizio bat jartzera. Bi edo hiru urtera jakin nuen medikuak agindutako tratamendu hura arriskutsua izan zitekeela niretzat. Ginekologoz aldatzea erabaki nuen, eta, zorionez, tratamenduak ez zidan kalterik egin. Hala, inolako arazorik gabe izan nuen bigarren semea.

Zu noiz hasi zinen zerbait susmatzen? Noiz pentsatu zenuen akaso zuri ere semea lapurtu zizutela?

Nik egunero irakurtzen dut egunkaria, eta, hala, irakurri nuen Sevilla aldean haurrak lapurtu zituztela. Hasieran ez nintzen larritu. Gero, ordea, Gipuzkoan, eta batez ere Asuncionen, haurrak lapurtu zituzten susmoak zeudela jakitean, orduan sekulako sustoa hartu nuen. Orduan hasi nintzen gertatu zitzaidan dena gogoratzen eta dena ulertzen.

Seme gazteenak segituan deitu zidan, ea albistea irakurri nuen galdetzeko. Hala, prozesu guztia martxan jartzea pentsatu genuen, eta Anadir elkartera jo genuen.

Ordutik aurrera, zein urrats eman dituzu?

Anadirren esan zidaten herriko epaitegira joan eta nire semearen heriotza-agiria eskatzeko. Ordizian ez zegoela-eta Tolosara joan behar izan nuen. Han zegoen agiria. Semearen ustezko heriotzaren arrazoiak ere idatzita zeuden. Agiri horrek, ordea, ez zuen epailearen sinadurarik, eta sinadura hori ezinbestekoa da. Anadirren esan zidaten haurra lapurtu zidatela pentsatzeko moduko arrazoiak bazela. Eta, hala, dena martxan jarri nuen. ADN probak egin nituen, eta salaketa bat jarri nuen.

Zure kasua argitzeko, dokumentu batzuk behar-beharrezkoak dira. Zailtasun dezente dituzue paper horiek eskuratzeko, ezta?

Asuncion klinikan, adibidez, nire semea jaio zeneko paperak eskatu ditut, eta esan didate dokumentu horiek ez daudela han. 70eko hamarkadan dokumentuak eskuz egiten zituztela eta horiek beste artxibo batean daudela esan didate.

Asuncionetik Tolosako epaitegira joan nintzen, nire kasua nola zegoen jakin nahi nuelako. Han esan zidaten nire kasua beste askorekin batera behin-behinekoz geldituta dagoela dokumentazio faltagatik. Datozen asteetan argituko digute gure kasuak zein pausotan dauden, eta behin-behinekoz geldi daudenak zergatik dauden horrela. Beharrezko dokumentuak lortzeko zer egin dezakegun ere aztertuko dugu hurrengo asteetan.

Dakizunez, Itsasondon ere izan da zure antzeko kasu bat. Zer esango zenieke itsasondoa-rei eta oro har goierritarrei?

Ba "SOS Haurtxo Lapurtuak" taldeak kontzentrazio bat egiten duenean, ahal duenak parte har dezala. Goierrin antzeko egoeran gaudenok batasun gehiago izan behar genuke, eta, tarteka, Ordizian edo Beasainen kontzentrazioak egin beharko genituzke. Ikus dezatela Goierrin ez gaudela geldirik, ikus dezatela gu ere hor gaudela.

Horrez gainera, jende guztiari esango nioke oso garrantzitsua dela adoptatuak izan direnek ADN probak egitea. Proba erraza da, ahoan txistu lagin bat hartzen da eta listo. Adoptatuek ez dezatela beldurrik izan, ez dezatela euren guraso adoptiboei minik egiteko beldurrik izan. Seme-alaben bila ari garenok ez ditugu eurek ezagutu duten familia horretatik apartatu nahi. Nik nahi dudana da nire semeak jakin dezala guk ez genuela abandonatu, jakin dezala hemen gaudela eta nahi duenerako hor izango gaituela beti.

Zer esango zenieke zure semearen ustezko lapurretan parte hartu zuten mediku, emagin eta abarri?

Ez nieke gauza askorik esango. Ez nuke nahikoa balore izango, negarrez hasiko nintzateke eta. Bakarrik esango nieke kontuan hartzeko nire sufrimendua. Kontuan har dezatela nik bederatzi hilabetez nire barruan eraman nuela gure semea, lehenengo umea izango genuenaren ilusioarekin, gainera! Galdetuko nieke ea zer duten euren barruan, deaburen bat ote duten egin zutena egiteko. Pentsatu dezatela mundu honetan zerua edo dena delakoa badago, eurek ez dutela oso ondo pasatuko beste mundu horretan.■


Adinekoen tratu onaren alde

Azkeneko urteetan, gure gizartean, gero eta gehiago antzematen dira adinekoen aurkako tratu txarren kasuak. Definizio ugari dago adinekoei ematen zaizkien tratu txarrei buruz. Tratu txarren definizio zabalduenetako bat da 2002. urtean Osasunaren Munduko Erakundeak berretsita-koa: «konfiantza itxaropena dagoen edozer harremanen barruan, adinekoren bati kaltea edo atsekabea eragiten dion ekintza bat egitea (behin edo gehiagotan) edo **egin beharreko zerbait ez egitea**». *Adinekoen aurkako tratu txar* kategoria orokorraren barruan mota asko daude; horien artean azpimarragarrienak: tratu txar fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa, sexuala eta arduragabekeria.

Helduen kontrako tratu txarren kategoria orokorraren barruan, zenbait mota daude; besteak beste, tratu txar fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa, sexuala eta axolagabekeria.

Tratu txar fisikoa: adineko pertsona jotzea, masailekoa ematea, bultzatzea, astintzea, erretzea, giltzaperatzea, botikak oker ematea, euskarri fisikoak erabiltzea... eta, ondorioz, min edo kalte fisikoa eragitea.

Tratu txar psikologikoa: mota horren barruan daude hitzeko erasoak, mehatxuak (instituzionalizatzea, adibidez), eraso emozionala, beste pertsona batzuei egindako erasoak ikusaraztea, ezinegon psikologikoa sortzea, adinekoak egin dezakeena edo egin ez dezakeena kontrolatzea, telefona erabiltzen ez uztea eta adineko bati egin dakioken beste era bateko edozein mehatxu eta irain. Halaber, tratu txar psikologikoa da bere buruari dagozkion erabakiak hartzen ez uztea adinekoari. Portaera edadista da, infantilizazio eran, adinekoarekin haurra balitz bezala jokatzeko. Hori ere tratu txar psikologikoa da.



Informazio gehiago:
900 855 001 telefonoan edo Gizarte Zerbitzuetan.

Abusu sexualaren barruan daude edozer harreman sexual, adinekoak baimenik eman ez badu, bai ukipena indarrez gertatu delako, bai adinekoa bere onespina emateko gai ez delako, bai ukipen sexuala iruzur bidez egin delako. Abusu sexualak era askotakoak izan daitezke: exhibizionismoa; harreman sexualak; ahoko, uzkiro edo baginako lastanak; bortxaketa; sodomia; biluzterea edo sexua esplizituki erakusten duten argazkiak ikustera behartzea; eta indar fisikoa erabiltzea pertsona batekin, bere gogoz kontra harreman sexualak izateko.

Axolagabekeria da pertsona batek adineko baten bizitzeko beharizanezi ez erantzutea, nahita edo nahi gabe. Axolagabekeria mota bat baino gehiago dago: fisikoa, emozionala edo psikologikoa, eta ekonomikoa.

Tratu txarrak saihesteko, oso garrantzitsua da gizarteak orokorrean, eta profesionalek bereziki, adinekoei egiten zaizkien tratu txarren berri izatea, jakin dezatela, adibidez, zer diren tratu txarrak, zeintzuk diren tratu txar motak, zeintzuk diren halako gertaerak izateko aukera areagotu dezaketen arrisku faktoreak edo tratu txarrak daudela iragar dezaketen adierazleak.

Esku-hartzeko aukeretako batzuk ondokoak dira:

- **Profesionalak zehatz aztertu behar ditu adinekoak, tratu txarren arduraduna eta biek elkarrekin bizi duten egoera.**
- Osasun arloko profesionalek orientazioa eta aholkularitza eman behar diote familiari, axolagabekeria eta gehiegikeria egoerak saihesteko, zaintza eraginkor bat nola bideratu erakutsiz.
- Programa psiko-hezitzaileak indarrean jarri behar dira, zaintzaileari tratu txarrei buruzko oinarritzko alderdien berri emateko, bere zaintzako kontuak helarazteko (haserrea, estresa, depresioa eta antsietatea menperatzen jakitea) eta adinekoa zaintzeko aholkuak emateko (egoera zailak menperatzeko estrategiak).
- Arduradunak atsedean tartea izan ditzan zerbitzuak antolatzea; adibidez, zaintza behar duen pertsona eguneko zentroan egon dadin ordu batzuetan zehar, edo etxetik etxeko laguntzak, arduradunak beste jarduerara batzuk egin ditzan denbora-tarte horretan.
- Tratu txarrak ematen dituen pertsonak arazo psikologiko edo psikiatrikorik badu (depresioa, antsietatea, substantziekiko mendekotasuna), buru osasuneko zerbitzuetara edota errehabilitazio programetara bidera daiteke.
- Zenbait egoeratan, ezinbestekoa da auzibidera jotzea (adibidez, adineko pertsona berehalako arrisku egoeran dagoenean).
- Familia terapia. ■



Bizi-Nahi elkartean hitzaldia

Oraingoan ere otorduen aitzakia erabili dugu *Bizi Nahi* elkartean egonaldi goxo eta epel bat egiteko. Izan ere, Gureak Taldeko Iraia Urrutikoetxea etorri zitzaigun otsailaren 16an SUTONDO Katering programarekin, gure bizi kalitatea hobetu eta gure gustu eta beharrei erantzungo dieten kalitatezko dieta orekatuak eskaini asmoz.

30 bat lagun joan ginen SUTONDO Katering enpresak eskaintzen duen etxetik etxeko otordu zerbitzu berriaren aurkezpenera. Iraiak garbi adierazi zuen bezala SUTONDOren helburua **adineko pertsonen eta menpekotasuna dutenen bizi kalitatea hobetzea beste-rik ez da**.

Enpresa berri honen proposamena da **zerbitzua kontratatzen dutenei astean behin aste osorako bazkari eta afariak etxeraino eramatea**. Norberaren beharretara egokitutako dieta izateko aukera ere eskaintzen dute, eta

noski, hori guztia prezio egokian.

Gutariko askok uste dugu, zerbitzu berri honi esker, sukaldean istripuak izateko arriskua murrizten dugula, eta janaria prestatzen ematen den denbora bestelako ekintzak egiteko erabili dezakegula.

Itsasondon pil-pilean dugun gaia ukitzeko aukera ere izan genuen: zaborrarena. Baziren gutariko batzuk etxean zabor asko pilatuko zaigula pentsatzen zutenak, baina hizlariak garbi utzi zigun beraien janari guztia hutsean ontziratutako plastikozko ontzietan banatzen dutela, eta beraz, sortuko den **zabor bakarra birziklatu daitekeen plastikoa** izango dela.

Aurkezpenean, Iraiak hutsean ontziratutako ontzi batzuk banatu zizkigun, esku artean eduki eta ikusteko. Nahikoa omen da ontzi hauei **erdian zulo txo bat egin eta bi minutuz mikrouhinean berotzea, eta... jateko prest!** Eta halaxe egin genuen. Berak ekarritako albondiga batzuk berotu genituen elkar-

tean dugun mikrouhinean, eta denon artean dastatu. Egia esan behar badugu, zapore oneko janaria dastatu genuen, ez zegoen kexarik... Ordua ere halakoxea zen, afari merienda egiteko ordua!

Mikrouhinen kezka ere azaldu zen gure artean. Gaur egun, etxetresna elektriko hauek dakartzaten uhin elektromagnetikoen inguruko kezka medio, etxe batzuetan ez dago horrelako tresnarik; baina, arazo honi ere irtenbidea eman zion Iraiak: **ontzia ireki eta eltze batean berotzeko aukera**.

Hitzaldiaren amaieran gutariko batzuk zozketa bidez ontzi horietako zenbait etxera eramateko aukera izan genuen, eta horrela hitzaldian entzundako guztia egiaztatzeko aukera izan dugu.


Arratsaldea konpainia onean eta gustura igarotzeko aitzakia izan genuen beste behin, eta hurrengoan ere gure elkarteko ateak zabalik izango dituzuela esateko aprobetxatuz agurtzen zaituztegu. Hurrenarte! ■



13. Ibilbidea

Gaintza-Baliarrain- Altzagarate-Gaintza (PR-GI-29)

Iraupena: 2 ordu eta 30'
Ibilbidea:
Gaintza-Baliarrain: 60'
Baliarrain-Altzagarate: 60'
Altzagarate-Gaintza: 30'



Deskribapena: Gaintzako plazatik abiatu, eta Barberotegi eta udaletxearen artetik beherantz doan bideari jarraituko diogu. Bigarren bidegurutzean, breazko bidea utzi eta eskuinera egingo dugu. Basotik irtetean, borda batera iritsiko gara. Metro batzuk behera egin, eta erorita dagoen Otatza baserrira iritsiko gara. Pistari jarraitu, ur deposituaren ondotik pasa, eta jarraian igoera labur baten ondoren eroritako Irazusta baserrira jaitsi behar dugu. Ezkerrerantz biratu ondoren, beherantz jarraituko dugu. Puntu horretan, arreta handiagorekin ibili behar dugu, ibilbidea gurutzatzen duten pista ugari baitago. Aldapa txiki bat hastearekin batera, pista utzi, eta eskuinera hartuko dugu. Baso barnean, bidea bidezidor estu bihurtuko zaigu, eta baso pista batera eraman-

go gaitu. Pista horretatik, Baliarraingo eta Ibiurko urtegi-ko bista politak ikusi ahal izango ditugu. Bihurgune batean pista utzi, eta, zuzen-zuzen, bidezidor estu bati jarraituko diogu. Modu horretara, Baliarraingo herrigunea topatuko dugu. Orain errepideari gorantz jarraitu Abalzelai Goikoraino, bertan errepidea utzi, eta eskuineko bidea hartuko dugu. Lehenengo bidegurutzean eskuinera egin, zelai batetik pasa, eta jarraian beste bidegurutze batera iritsiko gara. Puntu horretan norabidea ezkerre aldatuta belarrezko pista bati segi, eta Altzagaratera iritsi baino 100 bat metro lehenago, berriro ezkerre aldatu eta baso pista batetik zehar, eta Bostaizetako lepora iritsiko gara. Hemen zuzen eta gero ezkerretara hartuz, Gaintzara helduko gara. ■



01 Otatza




Aralar

03



04 Orendain



04 Baliarrain



Lopetegi

05



06 Baliarrain



San Juan iturria

07



08 Altzagarate



Ordizia eta Beasain

09

Gaintza

10





Megaupload, Anonymous eta FBI mutur-joka interneten



Nork du botere handiagoa, interneteko erabiltzaileek edo herrialde garatuenetako gobernuak?

Jadanik jakingo duzue Megauploadetik liskarra izan zuela Estatu Batuetako Gobernuarekin. Hala eta guztiz ere, puntu batzuk azalduko dizkizuet, pixka bat gainerik, gauzak argitzeko.

Duela hilabete batzuk (azkenurreko alean uste dut), artikulua batean idatzi nuen Internetetik deskargatzea legekoa edo legez kanpoko den. Beno ba, urtarilean gertatutako liskarrekin zuzeneko lotura du. Bertan esan genuen ez dela legez kanpoko multimediako fitxategiak deskargatzea (pelikulak, musika, argazkiak...), baina lizentzia daukaten programak deskargatzea guztiz debekatuta dagoela (informatikako programak, sistema eragileak, jokoak, etab.). Noski, baina hori Espainiako Konstituzioak hala esaten duelako da. Zer gertatzen da, ordea, Estatu Batuek beren legea ezarri nahi badute? Edo, are zailago, Estatu Batuek bere legeak ezarri nahi badituzte Megaupload moduko nazioarteko enpresa batean? Puntu puntu saiaturik naiz gertatutakoa argitzen.

Estatu Batuetako Konstituzioak, beste herrialde askotakoak bezala, ez du onartzen Internetetik edozein fitxategi jaistea, nahiz musika, jokoak, pelikulak... Bakarrik salmenta digitala onartzen du; hau da, produktua ordaindu beharra dago deskargatzeko aukera izateko.

Eta hori Estatu Batuetan normala da, industria diskografikoak, filmen industriak, etab. indar handia baitute, eta Estatu Batuetako Gobernuari presio handia egiteko gai baitira. Horren ondorioz, edozer egiteko gai dira beraien interesak lortzeko.

Hori ikusita, Estatu Batuetako Gobernuak lege bat atera zuen (SOPA legea). Lege horrek lehentasuna ematen zion Copyright-a deskargatzeko aukera zuten web-orriak ixteari. Momentu hartan arrakasta handiena zuen web-orria Megaupload zenez, web-orria itxi eta jabeak atxilotu zituzten.

Megaupload-eko jabeek hau leporatu zieten: Copyright-a zuten fitxategiak gordetzea, gero deskargatu ahal izateko, diru garbiketa, eta gaiarekin zerikusirik ez duten beste salaketa batzuk.

Web-orria ixteak eragin handia izan zuen. Hala nola, Anonymous Interneteko komunitatea protestatzen hasi zen. Anonymous da mundu osoan dagoen informatika hacker komunitate handiena. Ikusita Estatu Batuek eta FBIk egindako operazioak, kontraerasoa egin zuten. Besteak beste, Anonymous-ek Sony Music, Universal eta hainbat disko-grafiaren web-orriak hackeatu, haien zerbitzarietatik atera gabe zeuden abestiak lortu, eta doan deskargatzeko aukera eman zuen.

Ikusita Estatu Batuetako Gobernuak borrokatzeko prest zegoela, Anonymous komunikatu bat bota zuen YouTube-n. Argi utzi zuen Estatu Batuetako Gobernuak ez bazien aurre egiten multinazionalen egindako presioei, Anonymous bertan behera botako zituela Gobernuak eta hainbat erakundetako zerbitzuak.

Esan beharra dago Anonymousek behin eta berriro eskatu izan duela kultura ahalik eta jende gehienarengana iristea, eta ez izatea pribilegiatuentzat bakarrik. Internetek askea izan behar du, ez du inongo multinazionalen inposaketarik jasan behar, eta beti ere erabiltzaileen ardura da erabakitzea zer dagoen moralki eta etikoki gaizki eta ondo Interneten munduan. Eta zergatik ezarri behar dituzte Estatu Batuek beren legeak Interneten? Herrialde bakoitzak bere eremuan ezarri beharko litzuke bere legeak, baina ez beste herrialdeetan.

Ikusita Megaupload-en auziak zenbaterako eragina izan duen sare sozialetan, prentsan, Interneteko komunitatean... Anonymous-en jarraitzaileak asko ugartu dira.

Nahiz eta Megaupload itxi, jendea ez dago batere ados Estatu Batuek egindako ekintzekin. Orain arte ez da beste istilurik sortu, baina dagoeneko jendea prest dago aurre egiteko multinazionalen egiten duten inposaketari. ■

Herrira plataforma

Ia 700 euskal herritar daude kartzelan, "terrorismoaren aurkako borroka" deitutakoak eragindako salbuespen arauen ezarpena dela eta. Espetxetako egoera okertzen ari delarik.

Presoen gehiengoa (%98,5) Euskal Herrikan kanpoko espetxeetan dago, Espainiako eta Frantziako gobernuak ezartzen duten sakabanaketa politikaren ondorioz.

Sakabanaketa beraien legearen eta presondegiko oinarritzko tratamendu ororen aurka doa. Preso daudenek zein beraien senide eta inguru sozial eta politikoarekiko mendekuan eta xantaian oinarritutako erabakia politikoetan oinarritzen da.

Sakabanaketak preso dauden lagunen bizi baldintzak gogortzen ditu, zigorra senide eta inguruko pertsonen zabalduz. Izan ere, preso dagoen lagunarekin denbora labur batez egon ahal izateko izugarritzko effortsua suposatzen du, bai denbora aldetik, bai espetxeetara joateko egin behar diren bidai luzeak suposatzen duten arriskuaren aldetik eta baita horrek guztiak suposatzen duen dirutzagatik. Honako datu hauek esandakoa berresten dute:

- Batz besterik presoak, Euskal Herrikan 724 kilometrotara daude.
- Bisitak burutzeko urteroko batzbestekoa 13.812 eurokoa da presoen senideentzako.
- Presoak bisitatze desplazamenduetan hildakoak dagoeneko, 16 lagun dira.

Egungo Espainiako eta Frantziako gobernuak kartzela eta zigor arloetan aurreko gobernuen ildo bera daramatela salatu beharra dago: zigoren gehitze, sakabanaketa, isolamendua, komunikazioen murrizketa, gaixo dauden presoen eskubideen urraketa, presoen hezkuntza eskubiderako eta euskararen erabilerarako trabak jartzea, espetxe zigorren iraupenaren murrizketarako aukeren ezabaketa, legeak onartutako mesedeen aplikazioaren murrizketa kartzelatik ateratzea eragozteko asmoarekin... Neurri horiek, batetik, espetxeetako bizi baldintzak gogortzea bilatzen dute, eta bestetik, preso dauden lagunek espetxean igaro behar duten denbora ahalik eta gehien luzatzea da.

Larritasun eta erabaki politiko guzti hauen aurrean, HERRIRA plataformak espainiar zein frantziar gobernuen ondorengoa eskatzen dio:

- Tratu duin eta errespetuzkoa jasotzeko eskubidea.
- Osasun eskubidea.
- Komunikazio eskubidea.
- Hizkuntza eskubidea.
- Hezkuntza eskubidea.
- Aitatasun eta aitatasun eskubidea.
- Askatasunerako eskubidea.
- Euskal Preso Politikoen Kolektibo gisa, Euskal Herrian eta elkarrekin bizitzeko eskubidea.



Urtarrilak 7

Euskal gizarteak urte asko daramatza preso politikoen eskubideen bermeak eskatzen. Urteak, presoen aurkako neurriek senideengan dituzten ondorio larriak salatzen. Urteak, estatu espainiar zein frantsesari beren legea betetzeko eskatzen. Munduan eman diren hainbat prozesu politikotan bezala, Euskal Herrian ere preso politikoen errealitateari konponbidea eman behar zaio.

Madrilik eta Paristik ez da egoera berriaren tamainako urratsik eman. Presoen dispertsioak bere horretan jarraitzen du. Senitartekoei milaka kilometro egiten jarraitzen dute. Hamarnaka euskal preso, Parot doktrinaren ondorioz, hil arteko zigorra betetzen jarraitzen dute. Gaixotasun larriekin dauden hainbat preso baldintza kaskarretan jarraitzen dute.

Urte honen hasieran, manifestazio erraldoia egin zen Bilbon, egoera hori salatzen. Itsasondoko herriak bat egin zuen aldarrikapen horrekin, eta autobus bat bete genuen Euskal Herriko milaka eta milaka pertsona bildu zituen manifestazio historiko horretara joateko.

Baina presoen aldeko mobilizazio-dinamika berriaren bidea, gure herrian, mobilizazio erraldoi hura baino zertxobait lehenago hasi genuen. Hala, abenduaren 19an egindako Udaleko osoko bilkuran, euskal preso politikoen eskubideen aldeko mozioa onartu zen. Abenduaren 27an, berriz, preso politikoen aldeko manifestua aurkeztu genuen herriko frontoian agerraldi publikoa eginda, eta herriko jende ugari eman zuen atxikimendua. Azkenik, abenduaren 30ean, ostiraletako kontzentrazioa egin ondoren, 24 orduko baraualdiari ekin zitzaion udaletxean. Bertan hainbat herritarrek eta zinegotzik hartu zuten parte, eta euskal preso politikoen egoerari buruz eztabaidatu ahal izan genuen.



Bilbora joateko autobusera igotzen

Ijittu Eguna

Otsailaren 11n, larunbatean, eguraldiak laguntzen ez bazuen ere, itsasondorok ez genuen irria galdu Ijittu Eguna ospatzeko garaian. Gure herriko kaleetan zehar ibili ginen zartaginekin zalapartaka.

Gutxi batzuk izanda ere, umoretsu sartu ginen Jubilatu Egoitzara, bakoitzak etxetik ekarritakoa, eta Udalak eta

Guraso Elkartek prestatutako afari-merienda elkarrekin gozatzeraz. Hantxe komentatzen genuen bezalaxe, espero dugu datorren urtera begira ea indar gehiagorekin animatzen garen, jai giro polita emateko egun horri. Hori horrela izatea guztion esku dago, benetan polita eta alaiagoa izan baitaiteke.



Emakumearen Eguna 2012

Martxoaren 8an, Emakumearen Eguna ospatu genuen Itsasondon. Zazpi eta erdietan elkartu ginen plazan, eta, Kaxintanen zerbait hartu ondoren, Arbelaitz elkartera joan ginen emakumeok, bertan afaltzera.

Aurten Manoliri egin zaio omenaldia, bera hautatu baitute herriko emakumeek. Maddi Alberdik eta Jone Iturriozek eman zioten saria. Mila esker guztioi bertara agertzeagatik.

Eskerrak ematen dizkiegu, baita ere, Arbelaitz elkarteari lekua uzteagatik, bai eta Iker eta Jesusi ere, afari goxo-goxoa prestatzeagatik. Horrez gain, eskerak eman nahi dizkiegu Jose Manuel, Ander, Bittor eta Jose Luisi, laguntzera eskaini zaretelako, baita afaria zerbitzatzera ere. Mila esker.

Mila esker guztioi, ITSASONDOKO EMAKUMEAK.



Euskal Herriko IV. Mus Txapelketa

Urtarrilaren 14an, Euskal Herriko IV. Mus Txapelketaren Itsasondoko kanporaketa jokatu zen Kaxintane tabernan. Guztira, 5 bikotek parte hartu zuten, eta finalera bi bikote hauek iritsi ziren: Aitor eta Xabi eta Jose Manuel eta Ana. Bi bikote horiek Gipuzkoako faserako txartela lortzeaz gain, ardo botila bana jaso zuten, beste parte-hartzaile guztiek bezala. Arratsalde osoa lehian eman ondoren, afal-ordurako jakin genuen herriko kanporaketaren irabazleak nor izan ziren:

- 1 - Aitor – Xabi.
- 2 - Jose Manuel – Ana.
- 3 - Aitor – Xabi.

Irabazleek Euskal Herriko mus txapelketako final-laurdenak jokatzeko aukera lortu zuten, beraz ZORTE ON Aitor eta Xabi!



Tolosako Dantzaki Txiki Eguna

Itsasondoko dantza ikastaroko haurrak otsailaren 18an Tolosan ospatu zen dantzari txiki egunerako gonbidatu zituzten. Han joan ziren herritar talde bat beraien ekitaldia ongi prestatuta. Haurrek primeran dantzatu zuten. Haurrek desfilea kaleetatik zehar egin zuten, eta 5 plazatan dantzatu zuten. 200 dantzari inguru inguratu ziren, 9 herritatik etorriak, eta giro paregabea izan zen Tolosan, trikitilari, txistulari, musikari eta txarangak alaitu zutelarik giroa. Hamaiketako eder batekin bukatu zuten goiza.



**EL JARDIN OLVIDADO****Kate Morton**

Lehen Mundu Gerra iritsi aurretik, haur bat utzi dute Australiara doan itsasontzi batean. Aurora izeneko emakume batek zainduko duela zin egin badu ere, bat-batean, Aurora desagertu egiten da. Sekretu asko gordetzen dituen istorio bat dugu esku artean.

**ZWEI FRAUEN****Joxean Agirre**

Literaturarekiko eta emakumeenganako pasioek bat egiten dute eleberri honetako protagonista izengabearengan. Gaztetan hasi eta zahartzaroaren atariraino, maite dituen andreekin izandako hainbat esperientzia eta amodioaren zenbait zoko-moko azalduko dizkigu liburu honek.

**ESTA NOCHE DIME QUE ME QUIERES****Federico Moccia**

Pertsona berri bat ezagutzen duzunean, zure bizitza aldatu egiten da. Gustatu edo ez, gu elkar ezagutu gara, zu nire bizitzan sartu zara eta ni zurean. Esaldi horri zentzua bilatzeko, aproposena liburu hau irakurtzea da.

**AURPEGIRIK GABEKO HILTZAILEAK****Henning Mankell**

Kurt Wallander ez da ari bere bizitzako unerik gozoena pasatzen: familia harremanak gaiztotu egin zaizkio, gehiegi edaten du, lo gutxi egiten, itxura zabartzen ari zaio... Hala eta guztiz ere, Lenarp aitona-amona baserritarren hilketaren ikerketa bere gain hartzen du. Agurea modurik baldarrenean izan da torturatua hil arte; amona, berriz, arnasarik gabe uzteraino estrangulatu dute. Azken hotsa bota baino lehen, ordea, kanpotarra hitza ezpaineratu zaio. Arrazimoa pil-pilean dagoen gizarte batean egin beharko du lan Wallander komisarioak. Badaki, gainera, onbera itxurako larru askoren azpian munstrorik handienak ere gorde daitezkeela. Ez du, bada, bizi den gizartearenganako aparteko fede onik...

**TIEMPO DE ARENA****Inma Chacon**

María Franciscak, hilzorian dagoela, etengabe deitzen die bere seme-alabei. Inguruko guztiak harrituta daude; izan ere, inoiz ez du haurrik izan. Amak zerbait ezkutatzen duen bitartean, Maria Franciscaren ahizpek aztertu egin dute zer gertatzen den.

LIBURUTEGIKO OHARRA:

Itsasondoko liburutegian zerbitzu berria jarri da. Hain zuzen ere, astearte eta asteazken goizetan arreta zuzena eskainiko da 9:30etatik aurrera. Bertan, arduraduna izango da eta erabiltzaileek txartelak egiteko, zalantzak argitzeko, liburuak topatzeko edota libururua eskatzeko aukera izango du. Interesatzen den libururik ez balego, beste liburutegietatik ekartzeko aukera izango litzateke. Horretarako, astearte edo asteazkenetan, liburutegira gerturatu behar da. Horrez gain, liburutegiko helbidea luzatu nahi da, liburutegira gerturatu ezin duenak bere eskaera egiteko: liburutegi.itsasondo@udal.gipuzkoa.net.

(lorezaintza gomendioak)

Beaucarnea

Oso landare indartsu eta mardula da, bere itxurak adierazten duen moduan. Ez du zainketa handirik behar, eta, aldiz, asko eskaintzen du. Horregatik, oso interesgarria da etxe barruak apaintzeko.

Elefante oina

Bi izen zientifiko ditu: **nolina** landare gazteentzat eta **beaucarnea** landare helduarentzat. Baina, askotan, landare horri buruz ari garenean elefante oinarekin identifikatzen dugu. Eta zergatik izen hori? Bere enborraren oinean agerian geratzen den sustrai erraboiakarak elefantearen oinaren antz handia duelako.

Jatorrizko herrialdeetan, Ipar Amerikan eta Hego Amerikan, 8 metroko zuhaitz baten itxura hartzera iristen da, baina gure klimetan ezinezkoa da hori.

Jatorrizko lekuan, eguzki-izpi zuzenak gustuko ditu, eta 5 eta 35° artean bizi da.

Beaucarnea ur asko pilatzen du sustraian eta enborrean, eta horregatik egon daiteke denbora luzean ureztatu gabe.

Zainketa

Leku argitsua behar du, baina udan eguzki zuzenetik babes-tuta. Temperatura 5 eta 35° artekoa izan behar du. Udan kanpoan egon daiteke, baina egokitzeko denbora eman behar zaio, ez erretzeko.

Astean behin ureztatzea komeni da, eta neguan, bi astetik behin.

Zenbat eta handiagoa izan, zaintza gutxiago behar du. Gehiegi ureztatuz gero, sustraiak usteltzeko arriskua dago. Neguan, landarea deskantsuan dagoenean, ur gutxirekin mantentzen da. Lainoztatu sarritan, hostoen muturrak hidratatuta egoteko.

Udan, bi astetik behin ongarria botatzeko komeni da. Beucarnea ongi irauten du, argitasuna eta ura besterik ez baitu behar. Oso motel hazten da, eta mimo batzuk eginez gero, urte askorako izango dugu.



Maixabel Garmendia
Izadia Loradenda. BEASAIN
943 88 14 40



(errezeta)

“Venere” arroza bieira eta txirlekin**Osagaiak: 4 lagunentzat**

“Venere” arroza 300 g.
12 txirla.
12 bieira.
Tipula.
Salda, olio, gatza.

Prestakuntza:

Hasteko, tipula txikituko dugu, eta olio pixka batekin su baxuan egin. Ondoren, arroza eta salda gehitu, eta egosten utziko dugu, 40 minutuz gutxi gorabehera. Kazuela espres batean ere egin daiteke, denbora gutxituz. Kontuan eduki “venere” arroza integrala dela; beraz, ur gehiago bota beharko diogu. Egositakoan, babarrunak bezala geldituko zaigu, arroz mota horren berezitasunetako bat baita hori. Beste alde batetik, txirlak irekiko ditugu, eta bieirak zartagin batean egingo ditugu, olio tanta batekin. Plater batean, jarri arroza, eta gainean txirlak eta bieirak.



Jose Ignacio Duhau
Rubiorena Jatetxea. BEASAIN
943 88 57 60

Oharrak



Guraso Elkartea:
Martxoak 24, larunbata, goizeko 10etan
elkartuko gara Herri Eskolari
garbiketa sakon bat emateko.

Kultur Agenda

Apirila

Apirilak 2, 3 eta 4:

Nerabeentzako ekintzak gaztelekuan.

Apirilak 2, 3 eta 4:

Haurrentzako ekintzak.

Maiatza

Maiatzak 5:

VIII. Goierriko Eskola Txikien Topaketa.

Ekitaldiak egun osoan zehar.

Maiatzean:

II. Herri Eguna, Gazte Asanbladak antolatuta.

Ekaina

Ekainak 23:

San Juan bezpera

Data zehazteko:

Dantzari txiki eguna.

Ikastaroak

Ezagutu eta hobetu ezazu zure memoria

Hasiera-data: Apirilak 18

Bukaera: Ekainak 18

Eguna: Asteazkenak

Ordua: 18:00-19:30

Argazki ikastaroa

Noiz: ekainaren 4tik 20ra bitartean

Egunak: ASTELEHENA-ASTEAZKENA

Ordua: 18:30-20:00

Izen ematea: apirilaren 16tik 27ra, udaletxean

Kopuru mugatuak izango dira.

Lehen 10 ikasleak onartuko dira.

Kostua: 35€

Autobus linea berria

- AMARA
Donostia
- UNIBERTSITATEA
Donostia
- ALEGIA
Rento geltokia, 9 zk.
- LEGORRETA
Kale nagusia, 13 zk.
- ITSASONDO
Udalekoaren parkea, 29 zk.
- ORDIZIA
Rento geltokia
- BEASAIN
Rento geltokia
- IDIAZABAL
Mugica tabernaren parkea
- ALSASUA
Herriko geltokian
- EXTARRI ARANATZ
Herriko geltokian

BONUAK	SAKANA - DONOSTIA		GOIERRI - DONOSTIA	
TXARTELA 26	140,00 €		90,00 €	
TXARTELA+	185,00 €		120,00 €	

ORDUTEGIAK	ALTSASU - DONOSTIA				DONOSTIA - ALTSASU	
Herria	Astelehenetik ostiralera				Larunbata eta jaiegunak	
Lizarrak	-	-	-	-	08:00(1)	-
Olazti	-	-	-	-	08:50(1)	-
Etxarri	06:20	-	-	-	09:05	-
Altsasu	06:30	09:15	12:30	16:30	09:15	16:30
Idiazabal	06:43	09:28	12:43	16:43	09:28	16:43
Beasain	06:55	09:36	12:55	16:55	09:36	16:55
Ordizia	07:02	09:43	13:02	17:02	09:43	17:02
Itsasondo	07:07	09:48	13:07	17:07	09:48	17:07
Legorreta	07:10	09:51	13:10	17:10	09:51	17:10
Alegia	07:18	09:59	13:18	17:18	09:59	17:18
Unibertsitatea	07:42	10:23	13:42	17:42	10:23	17:42
Amara	07:51	10:31	13:51	17:51	10:31	17:51
DONOSTIA - ALTSASU						
Amara	08:30	11:00	14:00	18:00	11:00	18:00
Unibertsitatea	08:39	11:09	14:09	18:09	11:09	18:09
Alegia	09:03	11:33	14:33	18:33	11:33	18:33
Legorreta	09:11	11:41	14:41	18:41	11:41	18:41
Itsasondo	09:14	11:44	14:44	18:44	11:44	18:44
Ordizia	09:19	11:49	14:49	18:49	11:49	18:49
Beasain	09:26	11:56	14:56	18:56	11:56	18:56
Idiazabal	09:48	12:08	15:08	19:08	12:08	19:08
Altsasu	10:01	12:21	15:21	19:21	12:21	19:21
Etxarri	-	-	-	19:31	-	19:31
Olazti	-	-	-	-	-	19:46(1)
Lizarrak	-	-	-	-	-	20:36(1)

Informazio gehiago: www.laburundesa.com
Tel. 943-303-505 eta 948-221-766

Telefono interesgarriak

Udaletxea

943 881170

- Gizarte Langilea
- Udal Arkitektoa
- Epaitegia

Haurreskola

943 164831

Herri Eskola

943 887704

Arbel-Aitz Elkartea

943 881339

Lurdes Janari Denda

943 885236

Arrastoa Botika

943 882148

Medikuarenean Txanda Hartzeko

943 805800

Kaxintane Taberna

606 756551

Nautiko Taberna / Izaskun Hotela

943 880012

Izaskun Ileapaindegia

943 160285

Sasietia

943 161555

Traste Zaharrak

943 161590

Taxi (Ordizia)

943 881486

itsasondo.e.o

Herriko Aldizkaria ((16. zk)) Martxoak - Ekaina 2012

Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:

Ainara Urteaga
Aranzadi Elkartea
Axier Bazaga
Belen Mendizabal
Danel Etxeberria
Edurne Ayuso
Eskolako haurrak
Erkuden Mendizabal
Haizea Arruti
Haurreskolako Hezitzaileak
Iker Uson
Iturritxiki Guraso Elkartea
Jose Ignacio Duhau
Jubilatuak
Maite Lasa
Maixabel Garmendia
Mikel Mendizabal
Miren Aburuza
Rosa Aurkia
Rosi Noguera

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.net

Lege gordailua:

ISSN:

SS-297-2010

2171-5572

GOGORARAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA
EKAINEAN IZANGO
DUZUTELA ETXEAN

Paper birziklatuan egina